



## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2021eko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du (erregistro-zenbakia: 174/2021), **Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bigarren aldatzeko legearen aurreproiektuari buruzkoa (Erref.: DNCG\_LEY\_2893/21\_11)**.

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Batzordearen iritzia Calonge Crespo batzordekide jaunak adierazi du.

### BATZORDEBURUA:

Sabino Torre Díez jauna.

### BATZORDEBURUORDEA:

Xabier Unanue Ortega jauna.

### BATZORDEKIDEAK:

M<sup>a</sup> Teresa Astigarraga Goenaga andrea.  
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.  
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.  
Iñaki Calonge Crespo jauna.  
M.<sup>a</sup> Jesús Urkiola Mendibil andrea.  
M.<sup>a</sup> Lourdes Pérez Ovejero andrea.  
Mirari Erdaide Gabiola andrea.  
Jaione Juaristi Sánchez andrea.

### IDAZKARIA:

Jesús M<sup>a</sup> Alonso Quilchano jauna.

## 187/2021 IRIZPENA

AURREKARIAK.....	2
LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA .....	4
BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA.....	8
KONTUAN HARTZEKOAK.....	8
I    Eskumenak eta arau-esparrua .....	8
II   Egiteko prozedura .....	13
III  Aurreproiektuaren edukiaren azterketa.....	17
A)  Ohar orokorrak .....	17
B)  Artikuluari buruzko oharrak .....	21
Lehenengo apartatua:.....	21
Bigarren apartatua: .....	23
Hirugarren apartatua: .....	24





Laugarren apartatua: .....	24
Zazpigarren apartatua:.....	24
Zortzigarren apartatua:.....	25
Hamargarren apartatua: .....	25
Hamaikagarren apartatua: .....	25
Hamahirugarren apartatua:.....	26
Hamaseigarren apartatua: .....	26
Hamazazpigarren apartatua:.....	27
Hemezortzigarren apartatua:.....	27
Hemeretzigarren apartatua:.....	28
Hogeita bigarren apartatua: .....	29
Hogeita bederatzigarren apartatua:.....	29
Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk: .....	29
C) Legegintza-teknikaren arloko oharra .....	29
ONDORIOA.....	31

## **AURREKARIAK**

1. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, 2021eko urriaren 4an emandako Aginduaren bidez (egun bereko sarrera-erregistroa du), goian aipatutako lege-aurreproiektuari buruzko kontsulta egin zion Batzordeari.
2. Sailburuaren igortze-aginduaz eta aurreproiektuaren testuaz gain, honako hauek daude espedientean:
  - a) Agindua, 2021eko martxoaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Legearen proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
  - b) Aurreproiektuaren memoria, 2021eko apirilaren 6koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak prestatutakoa.
  - c) Agindua, 2021eko apirilaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Legearen proiektua aurrez onartzekoa. Agindu horretan, arauzko testu elebiduna dago.



- d) Ebazpena, 2021eko maiatzaren 13koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariaarena, ekainaren 21eko Kiroleko Dopinaren aurkako 12/2012 Legea aldatzeko Legearen aurreproiektua –2021eko maiatzaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua– jendaurrean jartzeko dena.
- e) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren ofizioak; lege-aurreproiektuaren kopia bidai zitzaien Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Dopinaren aurkako Estatuko Agentziari, Osasun Publikoaren Zuzendaritzari eta Eusko Jaurlaritzaren sail guztiei. Era berean, kopia bidali zitzaien medikuen, farmazialarien eta albaitarien Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkargo ofizialei eta Euskal Herriko Soin Iharduera eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofizialari; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteari; Euskal Kirol Federazioen Batasunari; EKIMEri (Euskadiko Kirol Medikuntza Elkartea); eta EAeko kirol-federazio guztiei.
- f) Txosten juridikoa, proposamen-egile den sailarena, 2021eko ekainaren 1ekoa, Zerbitzu Zuzendaritzak eginikoa.
- g) Txostena, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena, 2021eko ekainaren 11koa.
- h) Aurreproiektuari aurkeztutako alegazioak, Ekonomia eta Ogasun Sailarenak, 2021eko ekainaren 16koak.
- i) Ofizioa, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearena, 2021eko ekainaren 16koa; haren bidez, generoaren arabera inpaktua neurtzeko txostena egiteko derrigortasunik eza adierazi zuen.
- j) Txostena, 2021eko ekainaren 17koa, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzarena.
- k) D21-013 Irizpena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarena, 2021eko uztailaren 6koa.
- l) Jasotako alegazioak baloratzeko txostena, 2021eko uztailaren 26koa.
- m) Kirolaren Euskal Kontseiluaren ziurtagiria, 2021eko uztailaren 28koa.
- n) Aurreproiektuaren memoria ekonomikoa, 2021eko abuztuaren 2koa.



- o) 8/21 Irizpena, 2021eko irailaren 16koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena.
- p) Txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena, 2021eko irailaren 21ekoa.
- q) Jasotako alegazioak balioesteko memoria, 2021eko irailaren 29koa.
- r) Ziurtagiria, Kirol Justiziako Euskal Batzordearena, 2021eko urriaren 6koa.

### **LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

- 3. Irizpenaren xede den testuak zioen azalpena eta artikulua bakar bat, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat biltzen ditu. Artikulua bakar horretan indarrean dagoen Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legean egingo diren 29 aldaketak jasotzen dira.
- 4. Azalpen-zatiak deskribatzen duenaren arabera, araudi berria eragiten duten motiboak bi egoeraren ondoriozkoak dira: i) Kiroleko Dopinaren aurkako Legea Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira egokitzea, zeina 2021eko urtarrilaren 1ean jarri baitzen indarrean, eta ii) Kiroleko Dopinaren aurkako Legea 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduaren (EB) (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa) ondoriozko datu pertsonalen babesari dagozkion aldaketetara eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikora (abenduarien 5eko 3/2018 Lege Organikoa) egokitzea.
- 5. Dopinaren aurkako Mundu Kode berriaren ondoriozko aldaketa esanguratsuenak honako alderdi hauetan oinarritzen direla nabarmentzen da:

Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotako arau eta irizpideei jarraikiz interpretatu behar da legea, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako eta argitaratutako nazioarteko estandarrak nahiz entitate horrek unean-unean ezarrita dituen dokumentu teknikoak barne.

Kirolariak zenbait motatakoak izan daitezke, kirol-maila batean ala bestean aritu (nazioartekoak ala ez), edo federatuak izan ala ez. Hain zuzen ere, kirolariei eska dakizkiekeen betebeharrak edo erantzukizun jakin batzuei dagokienez, kirolaria zein motatakoa den hartzen da kontuan.



Dopinaren alorrean legez kontrakotzat hartzen diren jokabideen katalogoan ageri diren arau-hauste jakin batzuk aldatzen eta beste batzuk gehitzen dira.

Dopin-kontroletan kirolariei hartutako laginak bitan banatzeko aukera ematen da, lagin horiek berriz ere analizatu ahal izateko balizko arau-hausteen preskripzio-epearen barruan.

Pasaporte biologikoaren bideragarritasuna indartzen da, dopinaren alorreko arau-hauste jakin batzuk egin ote diren zehazteko tresna baliozko eta onargarri gisa.

Ezartzen da dopatzaileen zerrendan badirela substantzia batzuk abusuzkotzat jotzen direnak. Substantzia horiek gizarte-eremu jakin batzuetan erabiltzen dira, aldizka, baina ez kirol-errendimendua hobetzeko asmoz.

Ezartzen da berariazko zehapen-tratamendu bat aplikatuko dela kasu batzuetan, baldin eta arau-hausleak dopinaren aurkako agintaritzak proposatutako zehapena onartzen badu.

6. Hau da artikulua bakar horretako atalen edukia:
7. Lehenengo apartatuak Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 1. artikulua aldatzea jasotzen du, eta beste bi apartatu gehitzen dizkio, 7.a eta 8.a. 7. apartatuak ezartzen du legeko arauak eta definizioak interpretatzeko orduan, kontuan hartuko direla, batetik, Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotako arauak eta irizpideak, bestetik, nazioarteko estandarretakoak, eta azkenik, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako Dopinaren aurkako Mundu Programa osatzen duten arau edo dokumentu teknikoetan bildutakoa.. Bestalde, bigarren apartatuak kirolariak motaren arabera sailkatzen ditu; zehazki, kirol-mailaren (nazioartekoak ote diren) eta kondizioaren arabera (federatuak ote diren).
8. Bigarren apartatuak beste bi letra -i) eta j)- gehitzen dizkio Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 3. artikuluari; 3. artikulua kirolari eska dakizkiokeen erantzukizunen katalogoa jasotzen du, lehiaketara itzultzeari dagokionez, Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren irizpideei jarraikiz, eta dopinaren eremuan zehatu dituzten pertsonen zerbitzurik ez kontratatzeari dagokionez.



9. Hirugarren apartatuak o) letra gehitzen dio 6. artikuluko 1. apartatuari, eta zehazten du kirol-entitateen erantzukizunen barruan dopinaren eremuan zehapenen bat jaso duten pertsoneri zerbitzurik ez zaila kontratatu behar.
10. Laugarren apartatuak 13. artikuluko –dopinaren kontrolak bermatzeari buruzko artikuluko– 11. apartatua aldatzen du, eta, hala, kirolariek jasotzen duten informazioa datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudira egokitzen du.
11. Bosgarren, seigarren eta zazpigarren apartatuek 13. artikuluko zenbait apartaturen idazketa berria jasotzen dute. Hala, idazketa berria dute 12. apartatuko c) letrak eta 6. eta 13. apartatuek, eta, hala, aukera ematen da kirolariei dopin-kontroletan hartutako laginak bitan azpibanatzeko, eta proba nahikotzat jotzeko aukera ematen da, kirolariak banatutako lagina egiaztatzeko flaskoaren analisiari uko egiten dionean. Pasaporte biologikoaren bideragarritasuna indartzen da, dopinaren alorreko arau-hauste jakin batzuk egin ote diren zehazteko baliabide baliiodun eta onargarri gisa.
12. Bestalde, zortzigarren apartatuak 14. eta 15. apartatuak gehitzen dizkio 13. artikuluari, dopina eta haren intzidentzia kontrolatzeko prozeduretan nazioarteko estandarrak eta dokumentu teknikoak aplikatzeari dagokionez.
13. Bederatzigarren apartatuak 14. artikuluko 8. eta 9. apartatuen aldaketa barne hartzen du, eta eskakizun gehigarriak eta erabilera terapeutikoko baimenak Dopinaren aurkako Mundu Kodearen aldaketara egokitzen ditu.
14. Hamargarren apartatuak 8. apartatua gehitzen dio 16. artikuluari, emaitza ez-positiboak dituzten laginen biltegitzeari eta analisi berriei buruzkoari.
15. Hamaikagarren apartatuak 18. artikuluko 3. apartatua aldatzen du, eta aukera ematen du egiaztatu edo homologatu gabeko laborategiek auzitegiko kontrolak egin ditzaten.
16. Hamabigarren apartatuak 7. apartatua gehitzen dio 18. artikuluari, eta kirolarien aldetik hamar urtez eginiko laginen lagapena jasotzen du.
17. Hamahirugarren apartatuak 19. artikuluaen –kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrendaren publizitateari buruzkoaren– 1. apartatua aldatzen du.
18. Hamalaugarren apartatuak 3., 4. eta 5. apartatuak gehitzen dizkio 19. artikuluari, substantzia eta metodoak kirolean debekatutzat jotzeari buruz.



19. Hamabosgarren apartatuak 6. apartatua gehitzen dio 22 bis artikuluari, behin-behineko etetearen onarpen boluntarioari buruzkoari.
20. Hamaseigarren apartatuak 23. artikuluko 1. apartatuko m) letra –dopinagatik zehatutako pertsonekin elkartzeari buruzkoa– aldatzen du.
21. Hamazazpigarren apartatuak n) letra gehitzen dio 23. artikuluko 1. apartatuari, eta zehapen oso larritzat tipifikatzen ditu informazioaren komunikazioarekin zerikusia duten mehatxu, larderia edo errepresaliak.
22. Hemezortzigarren apartatuak 4. apartatua gehitzen dio 23. artikuluari, eta arau-hauste larri gisa, jokabidea bera burutzea ez ezik, ahalegina egitea ere barne hartzen du.
23. Hemeretzigarren apartatuak 24. artikuluko 2. apartatua –laginik biltzen ez den kasurako zehapenari buruzkoa– aldatzen du.
24. Hogeigarren apartatuak 8. eta 9. apartatuak gehitzen dizkio 24. artikuluari, abusuzko substantzien erabilerari edo kontsumoari buruz.
25. Hogeita batgarren apartatuak 24 bis artikuluko 1. apartatua aldatzen du, dopinaren aurkako arauak bigarrenez hautsiz gero eteteari buruz.
26. Hogeita bigarren apartatuak 8. eta 9. apartatuak gehitzen dizkio 24 bis artikuluari, eta askotariko arau-hausteei buruzko alderdiak zehazten ditu.
27. Hogeita hirugarren eta hogeita laugarren apartatuek 6. apartatua gehitzen diote 26. artikuluari, eta 7. apartatua 27. artikuluari; hurrenez hurren, kirolarekin zerikusia duten pertsonen eginiko hertsapenengatik zehapenei buruzkoak dira apartatu gehigarri horiek.
28. Hogeita bosgarren apartatuak 12., 13. eta 14. apartatuak gehitzen dizkio 28. artikuluari; hala, dopinaren arloan zehapenak jartzeko irizpide berriak barne hartzen dira.
29. Hogeita seigarren apartatuak 6. apartatua gehitzen dio 30. artikuluari, eta, haren bidez, arau-hauste baten ondoriozko sari ekonomikoen birbanaketa arautzen du.
30. Hogeita zazpigarren apartatuak 5. eta 6. artikuluek gehitzen dizkio 31 bis artikuluari, lizentzia eteteko zehapena betetzeko aldiari kirolak duen estatusari buruzkoari, hain zuzen.



31. Hogeita zortzigarren apartatuak 38. artikuluko 3. apartatua –kontrolden laginak kontserbatzeko irizpideei buruzkoa– aldatzen du.
32. Hogeita bederatzigarren apartatuak 10. apartatua gehitzen dio 42. artikuluari, eta datuak Dopinaren aurkako Mundu Agentziari lagatzeko aukera aurreikusten du.
33. Xedapen iragankorrean aurreikusten da legea indarrean jarri aurretik dopinaren arloan eginiko arau-haustekak aurreko araudiari jarraikiz arautuko direla, arau berria onuragarriagoa izan ezean.
34. Azkenik, azken xedapenak dio EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

## **BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA**

35. Irizpen hau ematea nahitaezkoa da, «lege-aurreproiektuak» direnerako halaxe ezarri baitu –horien edukia eta helburua direnak direla ere– Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruz azaroaren 24an emandako 9/2004 Legeak 3.1. a) artikuluan. Era berean, ez gaude xedapen berak nahitaezotasun horri buruz adierazitako salbuespenetako baten aurrean.

## **KONTUAN HARTZEKOAK**

### **I ESKUMENAK ETA ARAU-ESPARRUA**

36. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketaren ikuspegitik, aztergai dugun aurreproiektuak aldatu nahi duen legearen –Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen– gaikuntza-titulu berberak ditu, eta hari buruzko irizpenak emanda dauzkagu (231/2011 eta 5/2016 irizpenak).
37. Aurreproiektuak Kiroleko Dopinaren aurkako Legean ezarritakoa aldatzen du partzialki. Lege horrek kiroleko dopinaren alorreko araudia ordezkatzeko zuzen, hasiera batean, Euskadiko Kirolaren Legean (ekainaren 11ko 14/1998 Legea) jasotzen zena.
38. Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen aurreko erreforman ohararazi genuenez, aurreproiektua oso alderdi jakin batzuen aldatetari buruzkoa da. Horrenbestez, eskumenen egoeraren inguruko azaleko azalpena egingo dugu soilik, arreta aldatetak eragiten dien alderdi horietan jarritz.





39. Hala ere, hasierako Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen aldarrikapena dela eta, analisi xehatua eta sakona egin zen eskumen- eta arau-eremuaren inguruan, eta hartara joko dugu, analisi zehatzagoa egiteko.
40. Edozein kasutan, nabarmendu behar da gizarte modernoan kirol-jarduerak, oro har, eta kirol profesionalak, bereziki, lortu duten garrantzia dela medio, horien inguruan dopina sortu dela. Dopinari hiru ikuspegitatik egin zaio aurre, eta, hain zuzen, horiexek dira dopinaren aukako araubidea justifikatzen duten zutabe nagusiak, hots: i) kirolariaren osasuna babestea; ii) lehiakideen arteko aukeraber dintasuna bermatzea, eta iii) kirolaren balioak zaintzea.
41. Arlo horretan, eremu aproposa dago kirol-jarduerak hartzen dituen esparruetan (esate baterako, osasuna, hezkuntza, kultura, ikerketa, heziketa fisikoa, lanbide aratuak edo merkataritza-legeria) administrazio publikoen (estatukoa, erkidegokoa eta tokikoa) eskumenak gurutzatzeko eta haien ekintzak aldiberekoak izateko (Konstituzio Auzitegiaren 194/1998 epaia, urriaren 1ekoa).
42. Azterketa sakona egiteko asmorik gabe, gogorarazi egingo dugu, besterik gabe, arauak bereziki herritarren osasunaren babesaren esparru materialean eragiten duen neurrian, zer dioen Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua: 1. apartatuan herritarrek osasuna babestua izateko duten eskubidea adierazten du, eta 3. apartatuan, agintari publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola sustatuko dutela, eta aisia behar bezala baliatzen lagunduko dutela. Eta Espainiako Konstituzioaren 53.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, printzipio horiek onartu, bete eta babestu egin behar dira, eta legedia positiboan, jardunbide judizialean eta botere publikoen jardunean horiexek izango dira kontuan. Hain zuzen ere, printzipio horiek legez garatzeak ahalbidetzen du eskubide horiek epaitegien aurrean baliatzea.
43. Halaber, gogoratu dezagun Autonomia Estatuaren (EAEE) 10.36 artikulua eskumen osoa ematen diola Euskal Autonomia Erkidegoari kirolaren alorrean, zeinean bete-betean sartzan baitira bai EKL legea bera, bai eta Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bera ere.
44. Arlo horretako gaian ez dago, Estatuari dagokiolako, eskumena oro har modulatzeko duen beste eskumenik, salbu eta aldi berean Estatuaren beste eskumen batzuk aplikatzeak dakartzan mugak eta eskumenak gauzatzean lurralde-printzipioak dakartzanak (Konstituzio Auzitegiaren 13/1988 epaia, otsailaren 4koa).



45. Hala ere, ezinbestekoa da gogoratzea badagoela estatu-mailako dopin-antolamendu bat, ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoak (Kirolariaren osasuna babesteko eta kirolean dopatzeari aurre hartzekoa; aurrerantzean, DOL) jaso duena. Lege horrek, xedapen jakin batzuetarako erabili duen eskumen-iturriaz gain, era generikoan aintzatesten du Estatuaren eskumen bat, hots, «Estatuaren antolamenduari buruzko xedapenak ematekoa, baita Estatuko kirol federatuari bere osoan eragiten dioten interesen gainekoak ere». Eta ezin da ahaztu, ezta ere, Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikulua xedatutakoa (DOLen azken xedapenetan lehenengoa).
46. DOL Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira egokitzeko, Kirolean Dopinaren aurka Borrokatzeko Lege Organikoaren proiektua izapidetzen ari da, zeinak eskumen-gaikuntza berari erantzuten baitio.
47. EKren 149.1.16 artikulua Estuari aitortzen dion eskumena («Osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra») EAEren 18. artikuluekin uztartu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen baitio, barne-osasunaren arloan, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea.
48. Osasunaren alorrean, eta maiatzaren 25eko 98/2004 KAEren arabera, «EKren 149.1 artikulua 16. erregelak ere aipatzen dituen oinarriak finkatzeak edota koordinazio orokorra (zati edo azpisistemen dibertsitate edo aniztasuna multzo edo sistemara bildu nahi du, kontraesanak saihestuz eta disfuntzioak gutxituz, honako hauen arabera: 32/1983 KAE, apirilaren 28koa, 2. OJ; 42/1983 KAE, maiatzaren 20koa, 3. OJ; 80/1985 KAE, uztailearen 4koa, 2. OJ) ezin dira garatu autonomia-erkidegoek arau horien arloetan eduki ditzaketen kideko eskumenen edukia husteraino (32/1983 KAE, apirilaren 28koa, 2. OJ)».
49. Eskema hori jarraituz, esan genezake, kirolaren ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena duela EAEko kirola antolatzeko, eta eskumen hori egikaritu dezakeela, aurreproiektuan egin duen bezala, dopinari aurre egiteko erregulazioa ezarrita. Eta osasunaren ikuspegitik, berriz, Estuak ezarritako oinarriak hartu beharko ditu aintzat, Estatu osoan guztien interesak modu bateratuan eta berdintasun-baldintzen arabera ziurtatzeko xedea baitute oinarriok, baina hortik abiatuta autonomia-erkidego bakoitzak, bere interesak aldezte aldera, egoki deritzen «bereizitasunak sar ditzake bere estatutuak dena delako gai horretan esleitzen dizkion eskumenen esparruaren barruan» (KAEak: 32/1981, 1/1982, 32/1983, 48 eta 49/1988, 69/1988; baita berriagoak ere: 149/1991, 141/1993, 109/2003, eta abar).
50. Adierazi behar da, era berean, DOL legearen zenbait manu organikoak direla (azken xedapenetan bigarrena). Lehen aipatutako 231/2011 Irizpenaren kariaz,



gaiari buruzko gogoeta sakona egiteko aukera izan genuen. Gauza bat soilik gaineratu behar da: aldatu beharreko alderdietan oso zeharka eragiten dutela kontuan izanik, ez da erkidegoko legeriari dagokionez kalifikazio horren ondorioz egon litekeen mugarik hautematen, Autonomia Erkidegoko kiroleko dopinaren «gaia» arautzeko (Konstituzio Auzitegiaren 127/1994 eta 61/1997 epaiak).

51. Gogorarazi behar da, orobat, hasiera batean, Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 12.9, 19.1 eta 21.1 artikuluei dagokienez, eskumen-gatazkak sortu zirela Estatuaren eta EAEn artean eta, horren ondorioz, Estatuak konstituzio-aurkakotasun errekurtsioa jarri zuela horien aurka. Haatik, bi aldeen arteko ezadostasun horiek Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen 2013ko martxoaren 13ko Akordioarekin (99 zenbakidun BOE aldizkaria, 2013ko apirilaren 25ekoa) ebatzi ziren. Artikulu horiek akordioaren baldintzen arabera egokitu ziren, Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen aurreko erreformaren ondorioz.
52. Halaber, ez dugu ahaztu behar Kirol Dopinaren Aurkako 2005eko Nazioarteko Konbentzioa, «Unescoren Hitzarmena», Espainiak berretsia. Unescoren Hitzarmenaren 4.1. eta 5. artikuluen arabera, estatu kideek Dopinaren aurkako Mundu Kodearen printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartzen dute oinarri modura, eta beren betebeharrak betetzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Neurri horietan sar daitezke Dopinaren aurkako Mundu Kodea osa dezaketen legegintzako neurriak, erregelamenduak, administrazio-politikak edo xedapenak edo beste zenbait neurri.
53. Arlo horretan, erkidegoko legegilea Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotzen diren xedapenak, Unescoren Hitzarmenetik eratortzen direnak, ekartzen ari da bere araudira. Horri dagokionez eta Konstituzio Auzitegiak hainbatetan aitortu duenez, ez dago arrazoirik autonomia-erkidego batek, eskumenei dagokienez, nazioarteko zuzenbidea gauzatzeko aukera eragozteko. Hala, nazioarteko hitzarmen eta tratatuak gauzatzeko, autonomia-erkidegoen eskumenari esleitutako gaiei dagokienez, ez dakar, agerikoa denez, eskumen berri bat esleitzea, dagokion autonomia-erkidegoak beste manu batzuen arabera dagoeneko zuzenaz apartekoa (Konstituzio Auzitegiaren 252/1988 Epaiak).
54. Hori dela eta, materialki eskumena daukanari dagokio Europar Batasuneko edo nazioarteko zuzenbidea betearaztea, barne-zuzenbideko arauen arabera; izan ere, «ez dago eskumen espezifikorik Europar Batasuneko zuzenbidea betearazteko» (Konstituzio Auzitegiaren 236/1991 eta 79/1992 epaiak). Edozein kasutan, berezko eskumenak betearaztean ez da «bestearen eskumen-esparrua inbaditu behar,



ez zaio eragotzi behar Konstituzioak eta estatutuek esleitzen dizkieten funtzioak betetzea, eta administratuei ez zaie, halaber, alferrikako zamarik ezarri behar» (Konstituzio Auzitegiaren 252/1988 eta 79/1992 epaiak).

55. Lurralde historikoetako foru-organoen eskumenei dagokienez, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa, LHL), 7.b.6 artikuluan esleitzen die foru-organoei arau autonomikoak garatu eta exekutatzeko alor hauetan: kirola sustatzea, eskola-kirolaren programak eta denontzako kirolarenak. Eta aurreproiektuan ez dira alderdi horiek aipatzen.
56. LHLren 6. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, Euskadiko kirolaren legeak erakunde komunei esleitzen die alor hauetako eskumena «dopatzeko aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea» [Euskadiko Kirolaren legearen 4.2.q) artikulua]. Kiroleko Dopinaren aurkako Legeak ez zuen eragin xedapen horren indarraldian, ezta aurreproiektu hau onartzeak ere.
57. Era berean, proiektuak ez du inolako eraginik udal-eskumenetan baldin eta udal-eskumen horiek, Toki Araubidearen Oinarriak Arazteko Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 25.2.1) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, «kultura-eta kirol-arloko jarduerak eta instalazioetarako» mugatuta badaude.
58. Ez eta EAEko Toki Erakundearen Legearen (apirilaren 7ko 2/2016 Legea) 19.1.19 artikuluan «Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzearen, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzearen» inguruan jasotzen diren eskumenetan ere.
59. Laburbilduta, ez diogu inolako arazorik ikusten proiektuaren edukari, autonomia-erkidegoaren eskumenak bidezko eran egikarituta daudelako.
60. Antolaketa-erakundearen ikuspegitik, EAEren 10.2 artikulua adierazitako eskumena ere tartean da, autonomia-erkidegoari bere autogobernu-erakundearen antolaketa, araubidea eta jarduerak esleitzen diona. Konstituzio Auzitegiak 50/1999 epaian (3. OJ) adierazi zuenez, autonomiak berezko du erkidegoko administrazioak bere burua modu askean antolatzeko eskumena, eta eskumen esklusibo den aldetik, eduki bakartzat du «dagozkien erkidego-administrazioak osatzen dituzten, edo horien mendeko diren, organo, administrazio-unitate edo erakundeak sortu, aldarazi eta deuseztatzeko ahala».
61. Bestalde, diziplina-prozedurak jorratzerakoan, prozesuko arauen gaineko eskumenen eta EAEko zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eta beronen antolaketatik eratortzen diren administrazio-prozeduren babesak dago (EAE legearen 10.6. artikulua).



## **II EGITEKO PROZEDURA**

62. 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoak (aurrerantzean, XOEPL), 3.1 artikuluan bere ezarpen-eremuaren barruan sartu ditu lege-forma duten xedapen orokorrak.
63. Aholku-batzordearen doktrina jarraituaren arabera, ohartarazi beharra dago, araubide-zertasun horrek ez duela baliogabetzen lege-aurreproiektuak egiteko prozeduraren azterketan lehenetsi beharreko ikusmoldea, bestelakoa izan behar duena, halakoak izapidetzearen ondorioz sortutako produktuek izaera berezia baitute.
64. XOEPLren asmoa da gobernuak beste arauen proiektuetan aplikatzen den metodologia bera erabiltzea lege-proiektuak egitean ere. Izan ere, xedapenaren zioen azalpenak dioenez, horrela «...legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako egitasmoak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidarako eta erabakia hartzeko, helburuak iristeko egokiagoa eta finagoa den teknika juridikoaz artikuluka banatua».
65. Hain zuzen ere, legebiltzarrean hedatzen baita bere zabalean legegintza-prozedura, eta Konstituzioak (EK), Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak (EAE) edo, batzuetan, lege organikoek baldintzak ezartzen dituzten kasu berezietan izan ezik, lege-proiektuek bete beharreko baldintza bakarra da beharrezko aurrekariekin batera bidaltzea Legebiltzarrera, Parlamentuak bere iritzia eman eta erabakia hartu ahal izan dezan; gutxienez ere, memoria orokorra, generoaren arabeko eraginaren eta zuzentze-neurrien aurretiazko azterketa, finantzaketari buruzko eranskina eta kontrol ekonomikoko txostena — aurrekontuari karga edo zama dakarkioten proiektuetan—, gure irizpena, eta legeriaren arabera nahitaezko diren beste txostenak (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua, eta Eusko Legebiltzarreko Araudiaren 133.2 artikulua).
66. Beraz, lege-aurreproiektuei dagokienez, prozedura gobernu-egoitzan oinarritzen den bitartean, ezin duenez arriskuan jarri amaierako produktuaren baliozkotasuna, helburu nagusi batekin aztertzen da egite-prozesua: hain zuzen, araua proposatutako edukiarekin idaztea eragin duen oinarri objektiboa ezagutzea. Ondorioz, legearen arrazionaltasunaren inguruan ikertzen da —ea hausnarketaren ondoriozko erabakia den—, baita haren arrazoizkotasunaren inguruan ere —gure ordenamendua taxutzen duten arau axiologikoei jarraitzen ote dien—.
67. Horretarako, aurreproiektuaren fase hauek aztertzen dira, betiere ikusmolde material batetik: organo sustatzailearen egite-fasea —hasierako testu arau-



emaila zentzuzkotzen duten arrazoiak eta gogoeta–; parte-hartze fasea –ea testua zabaldu den arauaren eraginpeko pertsonak eta sektoreek parte-har dezaten, zer iritzi izan dituzten eta zer arrazoi testua onartu edo errefusatzeko–; arauak hala esleituta, testu arau-emaila ikuspegi gaituetatik aztertzeko eginkizuna duten organoen esku-hartze fasea; eta arauaren eraginpeko esparruak dituzten administrazio eskudunen iritziak biltzeko fasea.

68. Prozedura aztertuz, halaber, egiaztatu daiteke ea aintzat hartu diren, kasuan-kasuan, arauaren bideragarritasuna baldintzatzen duten faktoreak (hau da, ea aztertu den bestelako hautabiderik eta horien ondorioz, eta benetan hautabideok aplikatzeko egon litezkeen aukerak, baita, orobat, horien bidez lortu nahi diren ondorioak erdiesteko gaitasuna ere). Alderdi horretan, azterketak arreta berezia jartzen du eragin ekonomikoaren gain: hau da, ahalegin publiko eta pribatuaren ebaluazioa jaso den.
69. Horregatik, espedientea aztertu egingo dugu, irizpenaren xede den testua lortzeko erabilitako prozedura xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legean xedatutakoaren arabera den ala ez ikusteko.
70. Hasteko agindua eman da, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legearen 5. artikuluan ezarri bezala, legegileak erabakitako edukiarekin, eta lege-aurreproiektua aurrez onartu da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7.1 artikuluan adierazitako moduan.
71. Espedientean justifikazio-memoria bat jasotzen da. Bertan, dopinaren alorreko EAEko eta nazioarteko arauari buruzko azterketa sakona egin ondoren, proposatutako araudiaren helburua azaltzen da; Kiroleko Dopinaren aurkako Legea Dopinaren aurkako Mundu Koderan egokitzean kontzentratuta legoke proposatutako araudia, funtsean. Memoriak arauaketa oneko printzipioak, gaikuntza ematen duten aurrekontu juridikoen eta ildo orokorren eta proposatutako neurrien bideragarritasunaren eta lege-aurreproiektuaren intzidentzia ekonomikoaren analisia ere egiten du. Halaber, genero-inpaktuaren analisia egiten da, eta halakorik ez dagoela nabarmendu da.
72. Txosten juridikoak XOEPLren 7.3. artikuluko eskakizunak betetzen ditu, eta, ondoz ondoko hainbat epigrafetan, aurreproiektuaren aurrekariak, eskumenak eta edukiaren inguruko azterketa egiten da, eta horri buruzko zenbait ohar egiten, testua hobetu eta egokitze aldera, aurreproiektua izapidetzeko beharrezkoak diren izapiddeen analisia barne.



73. Txostenak berak enpresetan duen eraginari buruzko txostena egiten du, EAEko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legeko (ekainaren 28ko 16/2012 Legea) 6. artikuluan ezartzen den moduan, eta EAEn eremuan jarduera ekintzailearentzako oztoporik ez dagoela nabarmentzen da.
74. Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 8.1 artikulua ezarritakoari jarraituz, testua jendaurrean jartzeko izapidea egin zen. Era berean, entzunaldi-izapidea egin da, 8.3 artikuluan esan bezala, eta testua modu partikularrean helarazi zaie lehen aipatutako erakunde eta elkarteei, eta horiek ez dute ohartarazpenik egin.
75. Aurreproiektua Legebiltzarrari bidali zaiola jakin da, Gobernuari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 7/1981 Legea) 56. artikulua eskatzen duen bezala.
76. Halaber, ekimenaren alorrean eskumenak dituzten administrazioei kontsulta egin zaie –foru-aldundiak–, eta ez dute haren inguruko alegaziorik egin.
77. Lege-aurreproiektua autonomia-erkidegoko administrazio orokorra osatzen duten sail guztietara helarazi da. Alegazioak jaso dira Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren aldetik eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoaren aldetik, eta guztiei erantzun zaie.
78. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak bi ikuspuntutatik eman du irizpena: hizkuntza-araudia betetzearen ikuspuntutik eta euskararen erabileraren normalizazioan daukan eraginaren ikuspuntutik.
79. Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak txostena egin du, eta, hartan adierazten denez, egokitzat jotzen da generoaren arabera eraginaren txostena igortzeko salbuespena aplikatzea, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ko bileran onartutako gidalerroen arteko lehenaren 2.1.d) letran xedatutakoari jarraikiz.
80. Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak zenbait iradokizun egin dizkio testuari, eta haietako batzuk onartu egin dira; gainerakoak direla eta, behar bezala oinarritu da aurreproiektuan sartzeko beharrik ez dagoela.
81. Funtzio Publikoko Zuzendaritzak, proiektatutako araudiaren edukia ikusita, balioetsi du araudi horrek ez diola erreferentziarik egiten administrazio publikoaren zerbitzura dauden langileen eremuari.



82. Orobat, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere egin du txostena aurreproiektuari buruz, horren testuak datu pertsonalen tratamenduari buruzko xedapenak dituela ikusita; Bulegoak, egin-eginean ere, bere eginkizunen artean baitu datuak babesteko legeak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan bete daitezzen zaintzea [Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1.a) artikulua].
83. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere txostenean nabarmendu du aurretik izan duela gaiari buruzko aurreko bi aurreproiektuak aztertzeo aukera, baina, harrezkero, arau-nobedade handiak izan dira datu pertsonalen babesaren arloan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendutik eratorritakoak. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta, haren bidez, 95/46/EE Zuzentaraua –Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra– indargabetzen da, zeina zuzenean aplikagarria baita estatu kideetan 2018ko maiatzaren 25etik, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa).
84. Aurreproiektuaren eduki zehatzari dagokionez, egokitzen jotzen du arauaren aplikazio-eremua zehaztea federatu gabeko pertsonen dagokienez, eta nabarmentzen du dopin-proben emaitzak osasunarekin zerikusia duten datuak direla, eta, beraz, babes berezia dutela, eta haien tratamendua baimenduta legokeela dagoen funtsezko interes publikoan oinarrituta. Hala ere, proportzionaltasun-eskakizuna bete beharko da.
85. Arauen aldetiko nobedadeetatik eratorrita, beharrezkotzat jotzen du Kiroleko Dopinaren aurkako Legea eguneratzea eta haietara egokitzea; aurreikuspen espezifikokoak sartu behar ditu datuak babesteko printzipioetan, eta ez soilik generikoak –14.12, 15.6, 42.6, 42.9, 46.2 eta 47. artikuluetan islatzen den bezala–; horiek ez dirudi bateragarriak direnik Konstituzio Auzitegiaren 76/2019 epaiak kategoria berezien tratamendurako adierazi dituen zehaztapen-eskakizunekin.
86. Gainera, zenbait gogoeta egiten ditu araudi berriak kontuan hartzen dituen printzipioei buruz: gardentasuna, helburua mugatzea, datuak minimizatzea, zehaztasuna, kontserbazio-epea mugatzea, osotasuna eta konfidentzialtasuna. Zehatzeko araubideari eta datuen tratamenduari buruzko zehaztapen batzuk ere egiten ditu, eta ezabatzeko eta ahanzteko eskubidea bermatzeko beharra





nabarmetzen du, eta Interneteko bilatzaileek argitaratutako datuak desindexatzeko neurri egokiak hartzea gomendatzen du.

87. Gai horren inguruan, Sailak onartu du Euskadiko Kirolaren Legeko 13. artikulua 6. apartatuaren testua aldatu behar dela, aurretik aipatutako datuen babesaren arloko araudi berrietara egokitzeko. Gainerako gaiei dagokienez, adierazi du Euskadiko Kirolaren Legeak dagoeneko zenbait aurreikuspen jasotzen dituela datu pertsonalen babesaren arloan, eta, horretarako, gai hori arautzen duen indarreko araudira bidaltzen duela, zenbaitetan, zeina nahikotzat jotzen baita pertsonen eskubidea bermatzeko.
88. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena ere badu, martxoaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluari jarraikiz emandakoa. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak aurreproiektuaren balioespen positiboa egin du, eta nabarmendu du kirolariei eska dakizkiekeen betebeharren edo erantzukizunen mailaketa haien kirol-mailaren arabera egitea.
89. Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak ere egin du txostena, eta adierazi du proiektuak ez duela zuzenean eragiten EAEko administrazioaren aurrekontuetan.
90. Azkenik, XOEPLren 10.2. artikuluan jasotzen den izapidea formalki bete dela uler dezakegu. Horrela, bada, dokumentu bat eratu da, izapidearen aurrekariaren inguruko laburpen baten ostean, egindako oharra jasotzen dituen, eta horietako bakoitzari erantzun argudiatua ematen.

### **III AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA**

#### **A) Ohar orokorrak**

91. Aurrez adierazi dugun moduan, aurreproiektuak Kiroleko Dopinaren aurkako Legean ezarritakoa partzialki aldatzea dakar. Funtsean, indarreko Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aipatutako Mundu Kode berrira (2019ko azaroaren 7an –Dopinaren aurkako Munduko V. Konferentzian, Katowice hirian, Polonian– onartu eta 2021eko urtarrilaren 1ean jarri zena indarrean) egokitzeko betebeharrari erantzuten dion aldaketa bat da.
92. Memorian adierazten denez, Dopinaren aurkako Mundu Kodea eta hura osatzen duten nazioarteko estandarrak nazioarteko kirol-mugimenduak nahitaez bete beharreko arau eta gidalerroen multzoa dira, baita beharrezko erreferentzia ere dopinaren aurkako borrokan esku hartzen ari diren erakunde publikoentzat (parlamentuak eta gobernuak, nagusiki).



93. Hala ere, ez dugu ahaztu behar dopinaren aurkako borrokan nazioarteko lehen tresna Europako Kontseiluak 1989ko azaroaren 16an dopinaren aurka egindako hitzarmena izan zela; Espainia hitzarmen horren parte da 1992tik. Hitzarmen hori garatzeko, hitzarmenaren protokolo gehigarri bat sinatu zen 2002ko irailaren 12an. Protokolo horren bidez, elkarri aitortzen dizkiote dopinaren aurkako erakundeek edo kirol-erakundeek lurralde bakoitzean egindako dopinaren aurkako kontrolak; Espainiak 2017an berretsi zuen protokoloa.
94. 5/2016 Irizpenean gogora ekarri genuen bezala, dopinaren aurka borrokatzeko, Dopinaren aurkako Mundu Agentzia sortu zen 1999an, zuzenbide pribatuko fundazio modura, Suitzako zuzenbidearen baitan.
95. Dopinaren aurkako Mundu Agentziak Dopinaren aurkako Mundu Kodea onartu zuen. Kode horrek estatuentzat lotesleak ez diren zenbait arau biltzen ditu, eta horregatik, zuzenbide publikoko nazioarteko baliabide bat sortu behar izan zen, loteslea estatuentzat. Hori Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioaren bidez lortu zen (UNESCOk onartu zuen 2005eko azaroaren 18ko bilkuran). Espainiak berretsi egin zuen konbentzio hori eta Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2017ko urtarrilaren 16an, eta barne-ordenamendu juridikoaren atal da, Konstituzioaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera.
96. Konbentzioak, 42 artikuluz gainera, bi eranskin eta hiru gehigarri ere baditu. Lehen eranskinean, debekatutako substantzien eta metodoen zerrenda dago – nazioarteko arauak–, eta, bigarrenean, helburu terapeutikoetarako produktuak erabiltzeko baimenak emateko arauak Gehigarriak direla eta, 1.a Dopinaren aurkako Mundu Kodea bera da; 2.ak laborategietarako arauak biltzen ditu, eta 3.a kontrolei buruzko nazioarteko araua da.
97. Eredu publiko-pribatu horren barruan, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak arau-sare oparoa eraiki du kirolean dopinaren prebentzioa eta haren aurkako borroka sustatzeko, hura ezabatzeari begira. Eredu hori Dopinaren aurkako Mundu Programaren inguruan eratzen da, eta hiru elementuk osatzen dute: Dopinaren aurkako Mundu Kodea, Nazioarteko Estandarrak eta Jardunbide Egokien Eredua.
98. Ingurune horretan, nazioarteko bost estandar onartu dira, dopinaren aurkako borrokaren eremuan zenbait alderdi harmonizatu eta argitzeko, eta haiek nahitaez gorde behar dira Kodea betetzeko.
99. Nazioarteko estandarrak eta haien eguneratzeak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren webgunean argitaratuko dira, eta dagokien testuetan adierazitako egunean jarriko dira indarrean.



100. Agiri teknikoek nazioarteko arauak aplikatzeko nahitaezko baldintza teknikoak dituzte, eta haiek betetzea ere nahitaezkoa da Kodea betetzeko. Eraginkortasunari dagokionez, Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren webgunean argitaratu eta berehala izango dituzte ondorioak, osteko beste datarik adierazten ez bada.
101. Eta jardunbide egokien ereduak eta gidalerroak –ez dira nahitaezkoak, ez dira argitaratzen, baina interesdunen eskura daude– Kodean eta nazioarteko estandarretan oinarritzen dira, eta dopinaren aurkako borrokaren arloei irtenbideak emateko jomuga dute.
102. Aurrekoak hainbat dokumentu biltzen ditu, eta haiek Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren webgunean argitaratzen dira –<https://www.wada-ama.org/>– eta bertan eguneratu.
103. Lehen Dopinaren aurkako Mundu Kodea 2003an onartu zen, eta, horren ondoren, bertsio berriak egin dira; Dopinaren aurkako Mundu Agentziak sei urtean behin onartu ditu bertsio horiek –2009an, 2015ean eta hau, gure azterketaren xede den aurreproiektuak egokitu duena–.
104. Nahiz eta Dopinaren aurkako Mundu Kodea ez izan konbentzioaren zati bat, konbentzioak espresuki adierazten du estatuetako legediak behartuta daudela Kodeko printzipioak errespetatzera, kiroleko dopinaren aurkako borrokarako ekimenak estatuan eta nazioartean koordinatzeari begira.
105. Hala, 3 artikulua honela dio: «Estatu alderdiek neurri egokiak hartu beharko dituzte, nola nazioan hala nazioartean, Kodearen printzipioei jarraikiz».
106. Bestalde, 4. artikuluan Konbentzioak Kodearekin dituen harremanak ezartzen dira: «Kiroleko dopinaren aurka borrokatzeko jarduerak norberaren nazioan eta nazioartean koordinatzeko, Kodeko printzipioak betetzeko konpromisoa hartzen dute Konbentzioko kide diren estatuek, Konbentzio honetako 5. artikuluan arautzen diren neurrien oinarri gisa. Konbentzio honetan ezer ez da eragozpen estatu kideek Kodeko neurriak osa ditzaketen beste batzuk hartzeko».
107. 2021eko Dopinaren aurkako Mundu Kodeak berak, 23.2 artikuluan, aplikazioaren inguruan, honako hau ezartzen du: «Sinatzaileek Kodearen xedapen aplikagarriak praktikan jarriko dituzte politika, lege, arau edo erregelamenduen bidez, haien agintaritzaren arabera, eta bakoitzak dituen eskumenen eremuan».
108. Ondoren, honako hau dio:



Sinatzaileek honako artikulua hauek ezarri beharko dituzte, erakundeak egiten duen dopinaren aurkako jardueraren eremuan aplikagarriak direnak, funtsezko aldaketarik egin gabe (aldaketa intzidentalak baimenduko dira idazketan, erakundearen izena, kirola, sekzio-zenbakiak eta abar aipatzeko):

- 1. artikulua (Dopinaren definizioa)
- 2. artikulua (Dopinaren aurkako arauak haustea)
- 3. artikulua (Dopinaren proba)
- 4.2.2 artikulua (Substantzia espezifikoak edo metodo espezifikoak)
- 4.2.3 artikulua (Abusuzko substantziak)
- 4.3.3 artikulua (Dopinaren aurkako Mundu Agentziak debeku-zerrenda zehaztea)
- 7.7 artikulua (Kirola uztea)
- 9. artikulua (Banakako emaitzak automatikoki deuseztatzea)
- 10. artikulua (Banakako zehapenak)
- 11. artikulua (Taldeei ezartzekoak diren zehapenak)
- 13. artikulua (Baliabideak), 2.2, 6. eta 7. apartatuen salbuespenarekin
- 15.1 artikulua (Erabakien efektu lotesle automatikoa)
- 17. artikulua (Izena emateko epea)
- 26. artikulua (Kodearen interpretazioa)
- 1. eranskina: Definizioak

Ezin izango zaie xedapen gehigarririk gehitu sinatzaile baten arauari, baldin eta artikulua honetan zerrendatutako manuen ondorioak aldatzen badira. Arau horiek berariaz aitortu behar dituzte Kodearen iruzkinak, eta Kodean bertan duten izaera bera eman behar diete. Hala ere, Kodean ezerk ez du eragozten sinatzaile



batek dopinaren aurkako helburuez bestelako segurtasun-, mediku- edo onargarritasun-arau edo jokabide-arau aplikagarriak hartzea.

109. Hala, bada, testuaren helburuak indarrean dagoen araudia Dopinaren aurkako Mundu Kodearen bertsio berriak dakartzan nobedadeetara egokitu beharri erantzuten dio, dopina kontrolatzeko eremuan eta, oro har, kirolean disfuntzio horren ondorioz sortuko liratekeen zailtasunak saihesteko; disfuntzio horrek kalte egingo lieke kirol-politika publikoen plangintzari eta garapenari, bai eta kirola egiteari eta kirolariek osasunerako duten eskubideari ere.
110. Bestalde, esan dugun bezala, aurreproiektuaren helburua da pertsona fisikoen babesean dauden nobedade garrantzitsuetara egokitzea, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez.
111. Aztertutako testuak, funtsean bere xedapenak Dopinaren aurkako Mundu Kode berriaren nobedadeetara egokitzera mugatzen den neurrian, ez du gai horretan indarrean den ordenamenduan behar bezala txertatzea eragozten duen ezadostasun esanguratsurik. Gure ustez osatu egin beharko liratekeen alderdiak edo gaia hobeto arautze aldera gogoetagai izan beharko liratekeen alderdiak azpimarratu besterik ez dugu nahi.

## **B) Artikuluei buruzko oharrik**

### **Lehenengo apartatua:**

112. Aurreproiektuak 7. apartatua eransten dio 1. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita: "Lege honen arauak eta definizioak Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 5. artikuluko 6. apartatuan (sic), nazioarteko arau eta estandarretan eta Dopinaren aurkako Mundu Programa osatzen duten arau teknikoetan jasotako arau eta irizpideen arabera interpretatuko dira".
113. Lehen adierazi dugun bezala, Dopinaren aurkako Mundu Kodea ez da zuzenean aplikatu daitekeen nazioarteko arau juridikoa; haren izaera Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioan txertatzen dator. Haren ondorioz, estatuek Kodearen printzipioei jarraitzen dieten «neurriak edo arauak hartu behar dituzte».
114. Horri dagokionez, interpretazio-izaera ofiziala kontuan hartuta, lan horretan laguntzen duten eta Dopinaren aurkako Mundu Programa osatzen duten arau-tresnen publizitatea bermatu behar da. Baina, ofiziala ez denez, ez dugu uste Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitalpen formala egitea nahitaezkoa denik –publizitate hori aurreikusita dago Kirolean Dopinaren aurka Borrokatzeko



Lege Organikoaren proiektuan; haren orde, argitalpen bat egin liteke Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan edo Dopinaren aurkako Euskal Agentziaren webgunean, edozein pertsonari aplikatu beharreko araudia ezagutzen dela bermatzeko. Nolanahi ere, adierazi beharko litzateke publizitatea Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen interpretazio-izaeraren arabera egiten dela.

115. Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 1. artikuluan 8. apartatu berriak hiru mailatan sailkatzen ditu kirolariak: i) nazioarte-mailako federatuak, ii) nazioartekoak ez diren federatuak eta iii) federatu gabeak. Lehenengo bi kategoriak, funtsean federazioaren lurralde-eremuaren arabera berezita. Federatu gabeak direla eta, federatuta ez egon arren, lege honen aplikazio-eremuan sartzen dira kirol-lehiaketa edo -jardueretan parte hartzen duten pertsonak, erregulartasun handiagoz edo txikiagoz parte hartzen dutela ere.
116. Azken kategoria hori behar bezala interpretatzeko, gogorarazi nahi dugu Kiroleko Dopinaren aurkako Legeak honako hau zehazten duela 6 artikuluan: «Lege honetan esaten direnetarako, kirolaritzat hartuko da legearen beraren mende dauden kirol-lehiaketetan parte hartzen duen pertsona oro, parte hartze hori federazio-lizentzia bidez egiten bada, unibertsitatekoa zein eskolako zein lege honen ondorioetarako kirol-lizentziaren balioa duen inskripzio-titulua izan».
117. Bestalde, Dopinaren aurkako Mundu Kodeak, definizioen atalean, honela sailkatzen ditu kirolariak: i) nazioarte-mailako kirolaria; ii) nazio-mailako kirolaria, lehiaketa mota batean edo bestean lehiatzen diren kontuan hartuta, eta iii) kirolari amateurrak; eskumena duen Dopinaren aurkako Erakunde Nazionalak halakotzat jotako pertsona fisikoari dagokio definizio hori, kategoria horretan sailkatu ezin izateko zenbait berezitasunekin betiere.
118. Sailkapen hori bera errepikatzen da gaur egun izapidetzen ari den Kirolean Dopinaren aurka Borrokatzeko Lege Organikoaren proiektuaren 4. artikuluan. Hark ezartzen du kirolari amateurtzat jotzen dela nazio- edo nazioarte-mailakoa ez den kirolaria.
119. Bada, federatu gabekoen kategoria sartzea funtsezko aldaketa da Dopinaren aurkako Mundu Kodean xedatutakoan, ez baitu kategoria mota hori aurreikusten. Are gehiago, sailkapen hori Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 6. artikuluan araberakoa izatea nahiko zaila da; izan ere, ez dirudi proiektatutako kategoriaren batera egokitu daitezkeen kirol-lizentziaren bat duten kirolariak.
120. Agerikoa da Dopinaren aurkako Mundu Kodean amateurren kategorian kokatuko liratekeela, baina, aurreproiektuan, kirol-lizentzia izatean, badirudi ezin izango



litzatekeela kategoria horretan edo beste batean sartu, eta, beraz, kirolarien sailkapenetik kanpo gera litezke dopinaren aurkako araudiaren ondorioetarako, hori Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen asmoa ez bada ere.

121. Hori dela eta, kirolarien sailkapena aldatu beharko litzateke, eta, hala, kategoria horren ordeztu kirolari amateurraren kategoria jarri, eta, hala, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen egokitzapena behar bezala bete. Dopinaren aurkako politikak aplikatzerakoan, aipatutako xedapenen artean dagoen lotura ukalezina kontuan hartuta, beharrezkoa da kirolarien definizioak Dopinaren aurkako Mundu Kodean aipatutakoetara egokitzea; izan ere, hura da egokitzen ari garen araua, eta, ikusi dugunez, kapitulu honetan ez da onartzen estatuek askatasunez eratzea.

#### **Bigarren apartatua:**

122. 3.j) artikulua Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.10 artikulua transposizioari dagokio; artikulua hori kirolari baten edo beste pertsona baten lotura debekatuari buruzkoa da. Testuak honako debeku hau islatu nahi du: kirolariak dopinaren aurkako erakunde batek desgaitutako pertsonekin elkartzea edo haien zerbitzuak jasotzea, edo, haiei lotuta ez badaude, dopina eragin duten egitateengatik profesionalki edo diziplinaz zehatuak izatea, edo dopinaren aurkako borrokaren arloan dopin-delitu batengatik kondenatuak izatea. Iraupena desgaituntza-aldiaren arabera izan beharko da, kondenaren iraupenarekin edo diziplina-zehapenaren aldiarekin.
123. Baina, aurrekoa islatzeko, testuaren mezua egokitzea komeni da. Alde batetik, irmoagoa izan beharko luke, eta jokabide hori debeku gisa islatu, «ez jasotzea» edo antzeko beste termino batekin.
124. Bestalde, «kontratazio» terminoa sartzeak eta, ondoren, «beste edozein harreman- edo komunikazio-modu» aipatzeak ez du aukerarik ematen debekatutako prestazio-jarduerak behar bezala mugatzeko. Zehatzagoa litzateke debekuen eremua kirolarekin zerikusia duten edozein motatako zerbitzuak eta harreman profesionalak eskaintzera mugatzea, bitarteko ekonomikoa izan edo ez.
125. Elementu horiekin debekuen eremua erabat mugatuta geratuko balitz ere, nahasterik ez egoteko beharrezkotzat jo litezkeen harreman profesionalen modu batzuk sar litezke, argibide gisa. Hala, zerrenda itxi bat ezarri gabe, honako jarduera hauek jasoko lituzkeela esan liteke, besteak beste: aholkularitza, ordezkaritza, tratamendua, lankidetzeta edo prestakuntza.



### **Hirugarren apartatua:**

126. 6. artikuluko 1. apartatuaren o) letra aurretik aipatutako debeku berari dagokio, baina kirol-erakundeen ikuspuntutik. Horregatik, ez dira aldatzen dagoeneko adierazitako argudioak, eta kasu honetan guztiz aplikagarriak dira; beraz, emantzat jotzen ditugu.
127. Kasu horiei dagokienez, ez dugu ahaztu behar Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.20.1 artikulua horrelako portaerak debekatzen dituela, ez bakarrik kirolarienak, baita dopinaren aurkako erakunde baten agintaritzapean dauden beste pertsona batzuenak ere, profesionalak diren aldetik edo kirolarekin lotutako beste izaera bat duten aldetik.
128. Bestalde, aurreproiektuak kirolarien eta kirol-erakundeen kasuan baino ez du sartu betebeharra, eta ez ditu betebeharrak bera duten beste langile batzuk sartu. Egia da zehapen-araubideak aurreikusten duela beste pertsona batzuen aldetik jokabide horiek debekatzea. Hala ere, arauen koherentziari dagokionez, komeniko litzateke Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 4. eta 7. artikulua berrikustea, aipatutako erantzukizunak sartzea haztatzeko.

### **Laugarren apartatua:**

129. 13.11 artikulua bigarren hitz-tartea A edo B lagin bat banatzeko aukerari buruzkoa da. Hartan, jaso behar litzateke kirolariari banaketa egin aurretik informazioa emango zaiolako berriazko bermea, laginak irekitzean bertan egon dadin, emaitzak kudeatzeko nazioarteko estandarrean jasotako betebeharrari jarraikiz. Ez-betetze horrek Dopinaren aurkako Erakundea behartuko luke frogatzera hark ez zuela kontrako emaitza analitikoaren eragin.

### **Zazpigarren apartatua:**

130. 13. artikulua 13. apartatuaren bigarren hitz-tartea dela eta, ez litzateke salbuespena izan behar apartatuaren lehen hitz-tartean xedatutakoaren aldean, pasaporte biologikoan ezohiko emaitzak dauden kasuan. Pasaporte biologikoaren kontrako emaitza ez da arau-hauste gisa tipifikatzen Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2. artikuluan; izan ere, besteak beste, arau-haustetzat jotzen du kirolari baten laginetan debekatutako substantziak edo metabolitoak edo markatzaileak egotea edo debekatutako metodoak erabiltzea, eta haiek zuzenbidean fidagarria den edozein metodoaren bidez frogatu ahal izango dira (Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 3. art.), eta haien artean sartzen dira, jakina, pasaporte biologikoan jasotako datuak.





131. Pasaporte biologikoa metodo bat da, eta aukera ematen du aldi batean jasotako kirolariaren datu fisiologikoen balioetan antzemandako anomaliatan oinarritutako ondorioak lortzeko. Probabilitate-metodo bat da, zeharkako detekzioa, zantzu bat zehazten duena, pertsonaren datuen interpretazioan oinarrituta dopina egon delako susmoa.
132. Ikuspuntu horretatik, beraz, zantzu-froga bat izango litzateke, aditu-froga, eta Dopinaren aurkako Mundu Kodean ezarritako nazioarteko estandarretan eta arauan ezarritakoaren arabera balioetsi beharko litzateke; haren aurkako froga onargarria da.
133. Horregatik guztiagatik, artikulua benetan adierazi beharko luke pasaporte biologikoaren baliozkotasun zientifikoaren presuntzioa, baina “egozketa-froga nahikoa” izan gabe; izan ere, horrek errugabetasun-presuntziorako eskubidea urratzea eta kirolariaren defentsarako ezintasuna ekarriko luke.

**Zortzigarren apartatua:**

134. 13. artikulua 15. apartatua aipatutako nazioarteko estandarren eta dokumentu teknikoaren publikitateari dagokionez, lehenengo apartatuari buruz egindako iruzkinak dakartzkigu.

**Hamargarren apartatua:**

135. 16.8 artikulua lagina kontserbatzeko gehieneko epea zehaztu beharko luke, alegia, hamar urtekoa, lagina biltzen denetik, zeina arau-haustea preskribatzeko epeari baitagokio.

**Hamaikagarren apartatua:**

136. 18.3 artikulua bigarren hitz-tartea dela eta, zuzenagoa litzateke, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 6.1.1 artikulua ezartzen duenari jarraikiz, arau-hausteei buruzko gertakariak aipatzea. Bestalde, egokia litzateke, Kirolean Dopinaren aurka Borrokatzeko Lege Organikoaren proiektuak egiten duen bezala, froga-metodo fidagarrien sorta zabaltzea, betiere zerrenda itxi bat osatu gabe; izan ere, funtsezkoa da arau-haustea egiaztatzeko metodoen fidagarritasuna.
137. Hala, adierazi ahal izango da, haien artean, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak egiaztatutako edo onartutako laborategietatik kanpo egindako laborategiko kontrolez edo auzitegiko beste kontrol fidagarri batzuek gainera, beste batzuk ere onartuko direla, hala nola auzitegiko azterketak, gertuaren, odolaren edo



kirolariaren parametro garrantzitsuak, baldin eta Dopinaren aurkako Mundu Agentziak baimendu eta onartu badu haiek erabiltzea.

**Hamahirugarren apartatua:**

138. 19.1 artikulua kasuan, Dopinaren aurka Borrokatzeko Lege Organikoa laster onartuko denez, artikulua aldatu da, indargabetutako lege bat aipatzeagatik defasea saihesteko. Zentzu horretan, ez diogu eragozpenik ikusten arau-proposamenari. Baina, aldaketa hori aprobetxatzeko, komenigarria litzateke kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrendari buruzko aipamena osatzea, eta substantzia eta metodo horiek kontsumitzeak edo erabiltzeak dopinagatiko zehapena ekar dezakeela zehaztea; hala, zehatzagoa litzateke erreferentzia.
139. 19.5 artikulua azalpen-zatian klausula argigarri bat du, eta hori xedapen gehigarri baterako egokiagoa litzateke; zalantzarria da haren erabilgarritasuna. Are gehiago, arauen interpretazioa argitu beharrean, nahasmena sortzen du; izan ere, modu independentean jardun dezaketen terminoak bereganatzen ditu, eta berezko zentzua hartzen du.
140. Gainera, apartatuko azken esaldiak indarrean dagoen debeku-zerrendara zuzentzen du, eta horrek, beharrezkoa ez izateaz gainera, segurtasun juridikorik eza eragiten du arauaren interpretazioan.
141. Bada, ez da ikusten azalpen argigarri hori baliagarria denik. Are gehiago, legean zehar, bi terminoen erabilera independentea 39. artikuluan baino ez da gertatzen, eta, kasu horretan, ez litzateke koherentea izango aipamen anbigualak.
142. Horregatik, egokiagoa litzateke apartatu hori kentzea, eta bi kontzeptuak bateratzea arauaren artikuluetan, gaur egun egiten den bezala, eta, beharrezkoa balitz, erreferentzia espezifiko indibiduala erabiltzea dagokion apartatuan.

**Hamaseigarren apartatua:**

143. Nahiz eta 23. artikuluko 1. apartatuko m) letraren aldaketak indarrean dagoenaren edukiaren zati bat errepikatzen duen, egoki deritzogu haren edukia aldatzeari. Egia da testua Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.10 artikuluan ezarritako debekuaren berdina dela, baina, Estatu Kontseiluak 135/2021 Irizpenean ere baieztatzen duen bezala, «elkartzeari» buruzko aipamenak gure ordenamenduan Konstituzioaren 22. artikuluari lotutako konnotazio batzuk ditu, eta horiek berrikustea gomendatzen dute.



144. Irizpenak berak Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.10 artikulua iruzkina aipatzen du. Honako hau dio: «Kirolariek eta beste pertsonak ez dute lan egin behar prestatzaileekin, entrenatzaileekin, medikuekin edo kirolariei laguntzeko beste pertsonekin, baldin eta desgaituta badaude dopinaren aurkako arauak urratzeagatik, edo zigor-kondena izan badute, edo diziplina-neurri profesionalak ezarri bazaizkie dopinari lotuta. Horrek barne hartzen du entrenatzaile edo laguntzaile gisa jarduten duen beste edozein kirolarekin lankidetzan jardutea, desgaituntzaren denbora-tartean dauden bitartean. Hona hemen debekatuta dauden elkartze-motetako batzuk: aholkularitza lortzea prestakuntzaz, estrategiez, teknikez, nutrizioaz edo kontu medikuez; terapia, tratamendua edo errezetak lortzea; edozein produktu organiko ematea analisisa egiteko, edo baimena ematea kirolariari laguntzeko pertsonari, agente edo ordezkari gisa aritzeko. Ez da beharrezkoa debekatutako elkartzeak inolako konpentsaziorik izatea».
145. Horregatik, araua elkartzeko oinarrizko eskubidearekin oker ez identifikatzeko, 23.1.m) artikulua 3.j) artikuluan aurreikusitako betebeharrarekin bateratu beharko litzateke, arestian adierazitakoari jarraituz. Hala, adierazi beharko litzateke debekatutako jokabidea dela kirolarekin zerikusia duten edozein motatako zerbitzuak jasotzea eta harreman profesionalak izatea, ordainketa ekonomikoa izan edo ez, eta, lehen aipatu dugun bezala, alderdi argigarri batetik, jarduera partikularrak modu irekian adieraztea.

#### **Hamazazpigarren apartatua:**

146. Era berean, 23.1.n) artikuluan, kasu gisa sartu beharko litzateke dopinaren aurkako edozein erakunderen izenean ikerketa bat egiten ari den pertsonaren baten aurkako larderia edo mehatxua. Balioespen bera egin behar da apartatuaren amaieran aipatutako errepresalien kasuan.
147. Gainera, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.11.1 artikulua zehazten duen bezala, deskribatutako jokabideak «fede onez» informatu duenaren aurka egiten dira.
148. Apartatu berean, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 2.11.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egokiagoa litzateke adieraztea informazioa dopinaren aurkako arauak ustez urratzeari buruzkoa dela, edo Dopinaren aurkako Mundu Kodea edo legea ez betetzeari buruzkoa. Hala, araua ez betetzea da ez-zilegitasuna zehazteko beharrezko baldintza.

#### **Hemezortzigarren apartatua:**

149. 23. artikuluko 4. apartatuan nahikoa izango litzateke artikulua zehatzeko moduko jokabide gisa aipatzea 1. apartatuko b), f), h), i) eta k) letretan



deskribatutako jokabideak egiten saiatzea, eta ez da beharrezkoa izango gauzatzea zehaztea, hori baita aipatutako apartatuetan tipifikatutako jokabidea.

### **Hemeretzigarren apartatua:**

150. 24. artikuluan 2. apartatuaren bigarren hitz-tarteak haztapen-irizpide bat jaso beharko luke federatu gabeko pertsonen (amateurrek) jokabideak zigortzeko. Irizpide hori egilearen erruduntasun- edo zabarkeria-mailarekin lotu beharko litzateke.
151. Bestalde, horrelako kirolariei dagokienez, apartatua idazteak ez du uzten interpretatzen zer zehapen ezarriko zaien zehagarriak izan daitezkeen gainerako kasuetan. Horri dagokionez, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.6.1.3 artikuluan jasotako kasua sartu beharko litzateke, zeinak honako hau xedatzen baitu: «Abusu-substantziarik ez dakarren dopinaren aurkako arauen arau-haustea pertsona babestu batek edo kirolari amateur batek egiten duenean, eta pertsona babestu horrek edo kirolari amateur horrek erruduntasun edo arduragabekeria larririk ez dagoela frogatu ahal duenean, zehapena izango da, gutxienez, kargu-hartzea, desgaikuntza-aldirik gabe, eta, gehienez, bi urteko desgaikuntza-aldia, egileen erruduntasun-mailaren arabera».
152. Artikulu horren aipua aprobetxatuz, ohartarazi behar da aurreproiektuak ez duela barne hartzen Dopinaren aurkako Mundu Kodearen bertsio berrian jasotzen den pertsona babestuaren kontzeptua, zeinak honela deskribatzen baitu: «kirolari edo beste pertsona fisiko bat, (i) dopinaren aurkako arauak haustean hamasei urte beteta ez dituen; (ii) dopinaren aurkako arauak haustean hemezortzi beteta ez dituen eta kontroleko talde erregistratu batean ere ez dagoena eta sekula kategoria irekian (open) nazioarteko ekitaldi batean lehiatu ez duena; (iii) adinaz bestelako motiboengatik, legeria nazional aplikagarriaren arabera gaitasun juridikorik ez duela irizten dena».
153. Dopinaren aurkako Mundu Kodean duen tratamendua kirolari amateurren tratamenduaren parekoa da, batez ere zehapen-araubideari dagokionez; beraz, testua berrikusi beharko da, bertan sartzeko.
154. Garrantzi berezia du Dopinaren aurkako Mundu Kodeko 14.3.7 artikuluan jasotako salbuespenak, zeinak 14.3 artikuluan aurreikusitako zehapenen nahitaezko dibulgazioa salbuesten baitu, «baldin eta dopinaren aurkako arauetako arau-hauste bat egiteagatik errudun aurkitu den kirolaria edo beste pertsona adingabea, pertsona babestua edo kirolari amateur bada. Adingabeei, pertsona babestuei edo kirolari amateurrei eragiten dieten kasuetan, aukerako dibulgazioa kasuaren gertakarien eta inguruabarren arabera izango da».



155. Kasu horretan, Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen 38 bis.4 artikulua aldatzea gomendatzen da, baina aurreikusi gabeko aldaketa da. Laburbilduz, adierazi beharko da kasu horietan zehapen-ebazpenak ez direla argitaratuko, ez bada modu arrazoituan balioesten argitaratzea komeni dela, argitalpenaren egokitasuna eta kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta.

**Hogeita bigarren apartatua:**

156. 24. artikuluko 8. apartatuak adierazi beharko luke zein irizpidetan oinarritu behar den arau-hauste aniztunengatiko zehapenen murrizketa.

**Hogeita bederatzigarren apartatua:**

157. 42. artikuluko 10. apartatuan egokiagoa litzateke adieraztea dopin-kontroletako datuak laga edo jakinarazi ahal izango zaizkiela kirol-eremuan dopinaren aurkako borrokan parte hartzen duten nazioarteko erakunde publiko edo pribatuei, datuen babesari buruz indarrean dagoen legediaren arabera.

**Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:**

158. Ikusi da aurreproiektuan ez dela sartu, legea aplikatzeko, zenbait terminoren definizioak jasotzen dituen eranskina. Koadro hori, ikusi dugunez, nahitaezkoa da, Dopinaren aurkako Munduko Kodeak ezartzen duenaren arabera.
159. Egia da testuan aipatutako eranskinean jasotzen diren definizioetako batzuk jasota daudela. Hala ere, aurreproiektuak berariaz jaso beharko luke horri buruzko eranskin bat, eta eranskin hori bertan txertatuko da interpretazio-ondorioetarako.

**C) Legegintza-teknikaren arloko oharrak**

160. Araugintza-teknikari dagokionez, kontuan hartuta bai lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak prestatzeko gidalerroak (Gobernu Kontseiluak onartutakoak 1993ko martxoaren 23an), bai arau-produktua hobetzeko komenigarriak diren bestelako gogoeta batzuk, ondoren adierazitako oharrak egitea egokitzat jotzen da.
161. Atariko gai gisa, aipatzekoa da aldaketa-testuak idazteak zailtasun berezia duela arau-nobedadearen xedea behar bezala zehazteko orduan. Horri dagokionez, aurreproiektuan atentzioa ematen duen alderdietako bat aurreproiektuaren apartatuei eta letrei egiten zaien aipamen desberdina da.



162. Aipatutako gidaleroen arabera, artikulua zenbaki arabiarrez zenbakitutako apartatuetan banatzen dira, eta apartatu horiek letra xehez alfabetikoki ordenatutako letretan. Atalen azpibanaketei dagokienez, identifikazio-ondorioetarako araurik ez dagoenez, gure kasuan hitz-tarte deituko diegu.
163. Bestalde, aldaketa-teknika honako hauetarako erabiliko dela aipatu behar da: lehenagoko xedapen bat beste era batez idazteko, arau berriak gehitzeko, indarrean dauden arauetatik zatiren bat kentzeko edo arau baten indarraldia luzatzeko edo amaitutzat jotzeko. Lehenengo testu batean beste testu bat sartzea izango da aldaketa horien xedea, eta, horren ondorioz, aldaketa-xedapenaren edukia oso-osorik sartu ahal izango da aldaketaren gai izan den arauan. Horri dagokionez, planteatu behar da kasu jakin batzuetan ez dela beharrezkoa artikuluen zatiak aldatzea, ez baitu inolako nobedaderik, haren birtualtasun bakarra aldatutako araua hobeto ulertzen laguntzea baita.
164. Oro har, genero- eta zenbaki-komunztadurak berrikustea gomendatzen da; izan ere, testuan zenbait desadostasun deigarri antzeman dira.
165. Dopinaren aurkako Munduko Kodearen 5. artikuluko 6. apartatuaren inguruan 1.7 artikuluko berriak egindako eta lehenengo apartatua jasotako aipamenak ez du zentzurik apartatu honetan. Akats hutsa da; izan ere, hala badagokio, haren kokapen egokia 3.i) artikuluan egin behar da, erretiratutako kirolariak lehiaketara itzultzeari buruzkoan (Dopinaren aurkako Munduko Kodeko artikuluen izenburuaren berdina da).
166. Lehenengo apartatua bertan, argigarriagoa litzateke 1. artikuluko 8.b) apartatua jasotzen den nazioarteko kirolari federatuaren definizioak adieraziko balu dagokion nazioarteko federazioak ezarritako irizpideen arabera halakotzat jotzen direnak direla.
167. Halaber, lehenengo apartatua sistematikoagoa izango litzateke apartatuen ordena aldatzea, eta, hala, 8. apartatuak 7. zenbakia izatea, eta alderantziz.
168. Egokiagoa litzateke 13.11 artikuluen bigarren hitz-tartearen aldaketak, laugarren apartatua jaso denak, 13. artikuluen 12. apartatua osatzea; izan ere, ez da B lagina aztertzei aukeraren zehaztapena, baizik eta beste kasu batena.
169. Bosgarren apartatua «apartatu» hitza erabili beharko luke, «epigrafe» erabili beharrean, egindako aldaketa aipatzeko.
170. Antolamendu sistematiko egokia erabiltzeko, seigarren apartatua bosgarren apartatu gisa agertu beharko luke, eta orain proiektatutakoak haren lekua hartu.



171. Hamaikagarren apartatuak adierazi beharko du bere xedea gehitzea dela, eta ez hitz-tarte berria aldatzea.
172. Hamabosgarren apartatuak adierazi beharko luke «apartatu» bat gehitzen dela, «zenbaki» baten ordeztuz.
173. Hamaseigarren apartatuaren barruan, 23. artikuluko 4. apartatuan, paragrafoen izendapena erabili behar da, letren izendapenaren ordeztuz, 1. apartatuko banaketak aipatzeko.
174. Testua hobeto ulertuko litzateke, baldin eta, hemeretzigarren apartatuaren barruan, 24. artikuluko 2. apartatuaren bigarren hitz-tartean, “lagin-bilketa baten mende ez egoteaz bestelako” hitzak ezabatuko balira; izan ere, haiek sartzeak beharrezkoa ez den erreduzantzia dakar.
175. Hogeita bigarren apartatuak adierazi beharko du 8. eta 9. apartatuak gehitzen direla, zenbaki izendatu beharrean.
176. Ohar bera egin behar da hogeita bosgarren apartatuaren inguruan.
177. 30.6 artikuluan, hogeita seigarren apartatuan jasotzen denean, adierazi beharko litzateke horretarako eskubidea «arau-hausleen emaitzak deuseztatu ondoren» izango dela.
178. Hogeita zazpigarren apartatuan, 31 bis artikuluko 6. apartatuak zehaztu beharko luke parte ez hartzea debekatutako lehiaketa edo jardueren ingurukoa dela.
179. Iruzkin bera egin behar da 38.3 artikuluko lehen hitz-tarteari dagokionez, zeina hogeita zortzigarren apartatuan txertatuta baitago.

## **ONDORIOA**

Batzordearen irizpena da, txosten honen mamian egindako oharrek kontuan hartu ostean, lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helaraz dakiokeela onespena eman diezaion.



Eta hala ziurtatzen dut, Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 24an, batzordeburuaren oniritziarekin, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazten dizugu: Batzorde honi jakinarazi behar zaio azkenean onartutako xedapena edo ebazpena, antolamendu eta funtzionamenduaren araudia onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean.

Jesús María Alonso Quilchano,

**Idazkaria**

Ontzat emana:

Sabino Torre Díez,

**Batzordeburua**

**Elektronikoki sinatua**